


92. zk.
2000ko abuztua



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



Frankeo itundua 48/27

ABUZTUAK 4.
6 p.m.

PLATER MIMATUAK...

**EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!**



**Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74**





Jai zoriontsuak
igaro ditzazuela!!!

hilabete honetan

Ale berezia dakarkizuegu oraingo honetan... Abuztuarekin batera Gasteizko jaiak datoz... Jaiekin batera aburu desberdinak... Hau dela eta, egokia eta interesgarria iruditu zaigu zenbait hiritarregana gerturatu eta jaien inguruan eurek emandako iritziak eta kontatutakoak abuztuko alearen haria izatea. Orotara 9 lagun ekarri ditugu gurera, zeinetatik 8 euskaraz aritu ziren gurekin... -Gasteizen euskara gora doan seinale!!!-. Zuek guztioi ale hau atsegina suertatuko zaizuelakoan, hona hemen hautatuak:

4. orr.:

Francisca Anduaga,
jaiak biziki gozaten
dituen amona



10. orr.:

Aiala Manrike Arbeo,
barra atzean



5. orr.:

**Itxaso Troyas eta
Nerea Lazkanoiturburu,**
txikiak bezain
parrandazaleak



17. orr.:

Josetxu Ribiere,
txosnetan lan eta lan



6. orr.:

**Itziar, Amaia, Naiara
eta Gizane, gauez
irten, egunez
deskantsatu**



18. orr.:

**Aitziber Goitia, Alde
Zaharreko auzokidea**



8. orr.:

Unai Zamalloa,
jaiekin
"maitemindua"



20. orr.:

**Iñaki Araolaza, loreak
zaindu behar**



22. orr.:

**Alberto Zerain, jaiak
sasoian**



GEU Elkartearen ekimenez egina

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Azala:** Iñigo Sarasola. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Zeledon (orrialdez orrialdeko irudia):** Mikel Valverde. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale Kopurua: 2.500 · LG: VI-582/92 · ISSN: 1133-0988 ·

Franko Inundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



*Bestetik ere, gurean publizitate
egiten dutenek ere jai
zoriontsuak opa dizkizuite!*

**Eta ez ahantzi... CUBA... LIBRE
BACARDI GABE!!!**

francisca anduaga:

“Zezensuzkoa ikustea gustatzen zait”

Franciscak, goizean goiz jaikita eta hain gustuko duen zezensuzkoa ikusi eta gero etxeratuz Gasteizko Jaiak biziki gozatzen ditu. Goizero 8:00etan iratzarri, eta bere paseotxo eman ondoren bigantxak ikustera joaten da. Bere seme-alaba eta ilobekin egotea ere atsegin du Franciscak, “bermutxo eta tortilla hartzera joaten gara”, baina “Egunsentiko Prozesioa eta Arrosarioa” eta “Farolen Prozesioa” jaietako ekintza onenak ditu oñatiar honek. Zezensuzkoa ikustera Olagibel kaleraino egunero gerturatu ohi da eta ia txinpart batek bere alkandora berrira salto egin zuen, eta hau desgustua Franciscak hartu zuena!



- **Izen-abizenak:** Francisca Anduaga
- **Jaioteguna:** 1922ko irailak 20
- **Adina:** 78 urte
- **Jaioterria:** Oñati, baina duela 30 urte Gasteizen bizi da
- **Jaietako egun onena:** Santiago eguna, “urtero Fiteroko berakatzak erosten ditut”
- **Gasteizko jaietatik aldatuko**

- luko... Ezer ere ez**
- **Eta Gasteizko jaiak falta dute...** Franciscak dauden bezala utziko lituzke, bere iritziz dena ondo baltago
- **Jaietako edaria:** Ura, hau besterik ez du edaten
- **Jaietako jana:** Berdura, txuleta on bat eta fruta, batez ere melokotola

Itxaso eta nereak:

“Aurtengo jaietan gaupasa egin nahi dugu”

Gurasoak, neba-arrebak eta lagunek osatzen duten koadrila handi batean urtero izaten dira Nerea eta Itxaso Gasteizko jaiekin gozatzeko prest. Aurtengo gaupasa egitearekin itxaropentsu daude gasteiztar gazte hauek, “beste urtetan gabez irten gara baina aurtengo ez dugu oheratu nahi”. Itxasok jaietako kontutxoaren artean bat gogoratzen du bereziki, “iaz eguraldi oso ona egiten zuten egun batean gaueko 3:00rak arte gelditu ginen ahizpa, aita, ama eta laurok batido bat hartzen”. Nereak, berriz, lau urterekin Plaza Berriko komun batean txisa egitera sartu, eta galdu zelakoan denak bere bila hasi zirela kontatzen du. Zelako sustoa!



- Izen-abizenak: Itxaso Troyas eta Nerea Lazkanoiturburu

- Jaioterria: Gasteiz

- Jaioteguna: 1991eko urriak 10 eta 1993ko maiatzak 21, hurrenez hurren

- Adina: Itxasok, 8 urte; Nereak, 7

- Ikasketak: Ursulinas Ikastetxean D.L.Hko 3.maila egiten du Itxasok; Nereak, berriz, Abendaño Ikastolan D.L.Hko 1.maila

- Jaietako egun onena: Txupinazo eguna, biak bat datoz. Eta Itxasok abuztuaren 4an bere aitaren urtebetetzea dela azpimarratzen du

- Gasteizko jaietatik aldatuko lukete...

Nereak zarata gehiegi dagoela dio eta Itxaso tabernetako zerbitzu motela eta txarraz kexatzen da

- Eta Gasteizko jaiak falta dute... Neskatxa hauek Gasteizko jaiak ondo daudela pentsatzen dute

- Jaietako edaria: Ura

- Jaietako jana: Txuletilak (Nerea) eta arroza eta oilaskoa (Itxaso)



Itziar, amaia, naiara eta gizane: "Kanpoko jendea liluratua gelditzen da hemengo giroarekin"

Batez ere gabez irten eta egunean zehar deskantsatu da neska talde honek jaietan egiten duena, "batzuetan ere bertsolariak edota 'hippyak' ikustera joaten saiatzen gara". Egun hauek lagunekin egoteko aprobetxatzen dituzte, "baina gehienbat lehenengo egunetan egoten gara elkarrekin, gero dagoen jende guztiaren artean galduta bukatzen baitugu...". Horretaz gain, kanpoko adiskide asko datozkie eta lagun taldea dexente handitzen da. "Kanpotarrek primeran pasatzen dute egunotan eta liluratuta gelditzen dira hemengo giroarekin, beraiek ez baitute horrelakorik".



- Izen-abizenak: Itziar Txurruka, Amaia Aristi, Naiara Aranguren eta Gizane Martinez

- Jaioteguna: 1978ko uztailak 8, ekainak 8, ekainak 23 eta irailak 3, hurrenez hurren

- Adina: 22 urte

- Ikasketak: Farmazia (Naiara izan ezik -Psikopedagogia-)

- Jaietako egun onena:

Abuztuaren 4ko gaua, "lehen eguna denez gogo handiarekin hartzen duzu, eta gainera giroa oso ona da"

- Gasteizko jaietatik aldatuko

lukete... 'Blusak'..., "horrek ez du esan nahi denak berdinak direnik, baina gauean beraiekin topatzea neska bati gerta dakioken gauzarik txarrena da"

- Eta Gasteizko jaiak falta dute...

"Guretzat dagoenarekin nahikoa da, egunean zehar gutxi irtetzen baikara"

- Jaietako edaria: Itziarrek kalimotxo nahiago du, Gizanek eta Amaiak garagardoa eta Naiarak konbinatuak

- Jaietako janaria: Bokatak besterik ez; akaso entsaladak...





MIKO
izozkiak

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

LIBURUDENDA
axular
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Campusean
• liburudenda
• paperdenda
• informatika
bertan
rriaga
Campus
Unibertsitate Pabilioia
Apraiztarrak, 1



Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• Fotokopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako...
behar duzun
guztia
PAPERTEGI TEKNIKON

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

6 HILERAKO EKIPAJEA



BAUSCH & LOMB **CIBA Vision**

www.multiopicas.com

UKIPEN-LENTEAK 14.900
PEZETAN BAKARRIK 89,55€

Eta opari moduan eraman
GURPILDUN MALETA eder bat

MENDIAOPTIKA
MULTIOPTICAS

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Multiopicasen 6 hilerako Packa: hilero aldatzen diren Multilens lentinez bi kaxa, Multifree edo Multibio Plusaren 2 pote eta lentixketako 2 kutxatila.

2000/08/31ra arteko promozioa

unai zamalloa: "Festak egunez nahiz gauez gozatzea dut gustuko"



Unai eta lagunek urteroko abuztuaren 4ko bazkariarekin harrera ona egiten diete Gasteizko jaietara. "Txupinazoa denok batera ikusten dugu telebistatik, horrela ez gara zikintzen eta etxera aldatzera joan beharrik ez dugu". Argi dago Unai denbora guztiz aprobetxatzen duela: "Jan, lo egin, altxatu eta berriro irten da jaietan egiten dudana". Gava kalean ematen badu ere arratsaldeetan "Kutxitik" poteatzera atera ohi da, "orduan lasai-lasai egoten da-eta". Gero, dantza egiten duten lagun pare bat ikustera joatea ere atsegin du. Egun eta gauez indarti dabil Unai jaietan, "urteko egun hobereak baitira".

- Izen-abizenak: Unai Zamalloa Azkueta

- Jaioteguna: 1978ko abenduak 29

- Adina: 22 urte

- Jaioterria: Bilbo (bi urterekin Gasteiza etorri zen)

- Ikasketak: Injinerutza Teknikoa-2. maila

- Gasteizko jaietatik aldatuko luke...

Jende pilo dago tabernetan, baina hori ezin da aldatu

- Eta Gasteizko jaietara falta dute...

Kontzertuetan gogoko ditudan taldeek jotzea

- Jaietako edaria: Kalimotxoa, garagar-doa eta "destorniladorea"

- Jaietako janaria: Bokata



NONBAIT

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutzi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA
arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



OKOIA!
arropa eta osagarriak

HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 13 71 02 Tfnoa: 26 19 91
01006 01004

vitrales



**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

MIKEL
DELIKA




GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDAÑO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA



aiala manrike, tabernaria: "Jaietakoak urteko gaurik txarrenak izaten dira"



Zeramika ikasi ondoren Herrikoia Tabernako barraren atzean bukatu du 20 urteko gasteiztar honek. Tabernarientzat jaietako gauak "oso txarrak" badira ere aurten hirugarren urtea beteko du Aialak jaietako tabernari gisa. Gavako 12:00etan sartu eta goizeko 8:00ak edo 9:00ak aldera irten ondoren gorputza ez da jai giro askotarako egon ohi baina, hala ere, irteeratxoren bat egiteko parada izaten da, ordubete edo gehien jota bi ordu lo eginda bada ere...

Izena: Aiala Manrike

Jaiotze data: 1979-10-12

Lanbidea: Tabernaria

Jaietarako edaria/janaria: "Ezer berezirik ez, betikoa"

Jaietatik gustuko: "Jaia bera.

Ateratzeko aukera paregabea da garai hau"

Jaietatik gustuko ez: "Jende gehiegi dago kalean eta ezin daiteke gustura egon"

- Zer egingo duzu aurtengo

Andre Maria Zuriaren Jaietan?

Ba aurreko urteetako gauza bera, mila motatako edariak zerbitzatu... Laburtuz: lan egin eta edan.





GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA
Aiztogile (Kutxi) kalean

MERKURIO-KADMIOMAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNACIONAL
ALCALINA

CELAGA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

amtsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43

**Eusko Alkartasunak
jai zoriontsuak
opa dizkizue
gasteiztar
guztiori**

**eusko
alkartasuna**



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ





**Gasteizko
Euskaldunon
Aldizkaria**

Zure aldizkaria!

**hilerik hile zure etxean
jaso nahi baduzu...**

**Egin zaitez HARPIDEDUN!!!
(urteko kuota: 2.000 pta.)**



DENETIKO GAIAK!



GASTEIZ EUSKALDUNA

ELKARTEA

**"Euskararen
erabilera
bultzatuz"**

• *Ekitaldi kulturalak, Kontzertuak,
Ikastaroak, Mendi Irteerak, Kirola...*

Hurbil zaitez

**Informazioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a
Tfnoa: 945 22 21 53 • 01008 GASTEIZ
e-mail: geugaste@grn.es**

UDA IKASTAROAK

HASI EUSKARAZ!



¡ EUSKARA ASÍ !

- 2 eta 5 orduko **IKASTAROAK**
- **MAILA GUZTIAK**
- **BARNETEGIAK:**

Bera, Etxalar, Leitza eta Lesaka.

• **IRAILEKO IKASTAROAK - BARNETEGIAK.
MATRIKULA: ABUZTUAREN 28TIK AURRERA**

• **INFORMAZIOA:**

GASTEIZ EUSKALTEGIA
Errege-Erregina Katolikoak 15 - C
945 - 288 922 tfnoa.

PINTO EUSKALTEGIA
Pinto 74
945 - 289 780 tfnoa.

ZALDIARAN EUSKALTEGIA
Badaia 25
945 - 24 49 05 tfnoa.



ZURE BETIKO EUSKALTEGIAK !

GASTEIZKO JAIAK



2000ko
egitaraua

boiing

larunbata

GOIZEAN

7:00 - Erdi Aroko hirigunean Andre Maria Zuriaren plazan. Egunsentiko Prozesioa eta Arrosarioa.
 9:00 - Plaza Berrian
 "GOAZEN FESTARA", Kalejira banda desberdinekin
 10:00-14:00 - Foru plazan. EUSKAL PILOTA.
 10:30 - San Migel parrokian. GOTZAIN-MEZA. San Kristobal eta Adurtzan. BIASTERIKO txaranga. Santa Luzia eta Aranan. LANTZIEGOKO txaranga.
 11:00 - Zezen-plazan. Bigantxak.
 Juan de Ayala plazan. Aire bataioa: Okerrak.
 Foru plazan. Arabako Boloen erakustaldia.
 11:30-15:00 - Floridako ibilbidean
 Gastronomía eta herri artisautza azoka. Arabaren eguna.

EGUERDIAN

12:00 - Plaza Berritik abiatuta. Kalejira: Euskaraz Bizi Taldea eta URKABUSTAIZ TRIKITIXA ESKOLA. Andre Maria Zuriaren plazatik...
 Erraldoi, Buruhandu, Zaldi eta Txotes konpartsa.
 Vicente Goikoetxea kalean
 Pailazeak: ZIRKO TIPIA (euskaraz).
 Peñafloredako Kondearen plazan. Gargantua.
 Foru plazan. Arabako Boloen erakustaldia.
 12:00-14:00 - Auzoetan. KIRRINKA Fanfarrea.
 Musika-giroa erdialdean. GESALTA fanfarrea.
 Prado parkean. Abentura gunea.
 12:30 - Plaza Berrian
 Kale antzerkia: HORTZEMUGA-PRIMUS.
 Eskoriatza-Ezkibel jauregian. CUARTETO DE TUBAS.
 Aihotz plazan. Trikitixa.
 Arka plazan. Ertzaintzaren Musika Banda.
 13:00 - Florida parkean. Gasteizko Udal Musika Banda.
 Foru plazan. Herri kirolak.
 13:30 - Aihotz plazan. Bertsolariak.
 Peñafloredako Kondearen plazan
 Txotxongiloak: KIXKA (euskaraz).

ARRATSALDEAN

17:00 - Plaza Berritik zezen plazara
 Zezenetara joatea.
 17:00-20:30 - Prado parkean. Abentura gunea.
 18:00 - Zezen-plazan
 ABONUKO LEHEN ZEZENKETA.
 18:00-20:00
 Peñafloredako Kondearen plazan. Gargantua.
 18:30 - Vicente Goikoetxea kalean
 Jotak: ALMA NAVARRA.
 Prado parkean. Haurrentzako dantzaldia: Etorri Taldea.
 Postetxe plazan. LANTZIEGOKO txaranga.
 Erdialdean eta Alde Zaharrea. GESALTZAKO fanfarrea
 19:00 - Senda ibilbidea. BIASTERIKO txaranga.
 Amerika plazan. Jazza: ZEZO RIBEIRO BAND.
 Aihotz plazan. Txistu kontzertua eta dantza.
 Musika Etxeko lorategian. Tango kolore eta erriemoa.
 20:00 - Principal antzokian
 "LAS MANZANAS DEL VIERNES",
 Jardin de Falerina. IOSU BRAVO.
 Eskoriatza-Ezkibel jauregian
 KLARINETE ETA SOKA BOSKOTEA
 20:00-21:30 - Florida parkean
 Dantzaldia: PRELUDIO.
 20:30 -Zezen-plazatik. Zezenetatik itzultzea.
 Aihotz plazan. DANTZA PLAZAN.

GAUEAN

23:00 - Mendizabalean (SHEE)
 1. SU ARTIFIZIALAK: PIROGESTIÓ
 BETI JAI frontoian. ESKU PILOTA, profesionalak.
 Principal antzokian. "LAS MANZANAS DEL VIERNES",
 Geltoki plazan. Gau-jai: SAZON
 Florida parkean. Gau-jai: Preludio.
 23:00-3:00 - Erdialdean. KIRRINKA Fanfarrea.
 23:30 - Aihotz plazan. Kantaldia: Egan.
 Olagibel kalean. Zortzi Zezenuzko eta musika-giroa.
 00:00 - Foru plazan. Kontzertua: CAFE QUIJANO.
 Arka plazan. Gau-jai: Maracaibo.
 00:30 - Plaza Berrian. INDIANA orkestra.
 Probintzia plazan. Salsa: Franky Torres y su Cabo Caribeño.

igandea

GOIZEAN

10:00-14:00
 Foru plazako pilotalekuan
 Andre Maria Zuriaren Saria: EUSKAL PILOTA.
 11:00 - Zezen-plazan. Bigantxak
 Foru plazan. Arabako Boloen erakustaldia.
 11:30-15:00 - Floridako ibilbidean
 Gastronomía eta herri artisautza azoka. Bizkaia eta Gipuzkoaren eguna.

EGUERDIAN

12:00 - Plaza Berrian. "GOAZEN FESTARA": kalejira banda desberdinekin
 ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN konpartsa.
 Plaza Berritik Babesgabatuena alderdira.
 Abetxuko auzoan. LANTZIEGO txaranga.
 Vicente Goikoetxea kalean. Pailazeak: OPELLI (erdaraz).
 Peñafloredako Kondearen pz. Gargantua.
 Foru plazan
 Arabako Boloen erakustaldia.
 12:00-14:00 - Auzoetan. Fanfarreak.
 Prado parkean. Abentura gunea.
 12:30 - Arka plazan. Ertzaintzaren Musika Banda.
 Plaza Berrian. Kale antzerkia: NANNY COGORNO.
 Eskoriatza-Ezkibel jauregian. TRIO CAMERATA.
 Aihotz plazan. Trikitixa.
 Babesgabatuena auzoan. BIASTERIKO txaranga.
 13:00 - Foru plazan. Herri kirolak.
 Florida parkean. Gasteizko Udal Musika Banda.
 13:30 - Aihotz plazan. Bertsolariak.
 Peñafloredako Kondearen pz. Txotxongiloak: (euskaraz).
 Plaza Berrian. Omenaldia ikurriari.

ARRATSALDEAN

17:00 - Pz. Berritik zezen-plazara. Zezenetara joatea.
 17:00-20:30 - Prado parkean. Abentura gunea.
 18:00 - Zezen-plazan. ABONUKO 2. ZEZENKETA.
 18:00-20:00 - Peñafloredako Kondearen pz. Gargantua.
 18:30 - Vicente Goikoetxea kalean. Jotak.
 Prado parkean. Haurrentzako dantzaldia: Etorri Taldea.
 Sefarad plazan (Judimendi). Lantziagoko txaranga.
 Erdialdean eta Alde Zaharrea. GESALTZAKO fanfarrea
 19:00 - Amerika plazan. Jazza: Dolphin Blues Band.
 Aihotz plazan. Dantza Arkaitz Añorgako Dantzariokin.
 Musika Etxeko lorategian. EPSILON: folk musika.
 Senda ibilbidea. BIASTERIKO txaranga.
 20:00 - Principal antzokian
 "SIN RENCORES".
 Jardin de Falerina. SILVIA SAN MIGUEL.
 Eskoriatza-Ezkibel jauregian. FIATO METAL Boskotea.
 20:00-21:30 - Florida parkean. Dantzaldia: Continente.
 20:30 - Zezen-plazatik. Zezenetatik itzultzea.
 Aihotz plazan. DANTZA PLAZAN.

GAUEAN

23:00 - Mendizabalean (SHEE)
 2. SU ARTIFIZIALAK: IGUAL.
 BETI JAI frontoian. ESKU PILOTA, profesionalak.
 Principal antzokian. "SIN RENCORES".
 Florida parkean. Gau-jai: CONTINENTE.
 Geltoki plazan. Gau-jai: SAZON.
 23:00-3:00 - Erdialdean.
 Musika kalean: KIRRINKA Fanfarrea.
 23:30 - Aihotz plazan
 Kantaldia: LISKER.
 Olagibel kalean
 Zortzi Zezenuzko eta musika-giroa.
 00:00 - Foru plazan. Kontzertua: KEPA JUNKERA.
 00:30 - Plaza Berrian. SAMOA orkestra.
 Probintzia plazan. Mexikoko musika: PACO FORMOSO.
 Arka plazan. Gau-jai: JOSELU ANAIK

ostirala

ARRATSALDEAN

18:00 - Andre Maria Zuriaren plazan
 2000ko jaiari hasiera emango dion SUZIRIAREN jaurtiketa eta ZELEDONEN JAITSIERA.
 18:45 - Udaletxea, Agirre Lehendakariaren kalea, Posta kalea eta Andre Maria Zuriaren plaza
 UDAL SEGIZIOA BEZPERETARA JOATEA, honako hauek lagunduta: UDAL MUSIKA BANDA, UDAL TXISTULARI BANDA, ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN KONPARTSA, eta gaitajole banda hauek: UDAL FOLKLORE AKADEMIAKOIA, INDARRA, ELTZIEGO, EZBERDINAK, ERLETXO eta BIASTERI.
 San Migel parrokian
 BEZPERAK, LORE ESKAINTZA eta HERRI-SALBEA, Andre Mariaren irudiaren sursarean, eta ERRALDOI, ZALDI eta TXOTEN KONPARTSAren dantzaldia.
 19:00 - Santa Barbara plazan
 Musika-giroa: BIASTERIKO TXARANGA.
 Amerika plazan
 Musika-giroa: LANTZIEGOKO TXARANGA.
 20:30 - Aihotz plazan
 DANTZA PLAZAN: Larrain Dantza eta Txulalai, UDAL FOLKLORE AKADEMIAKO gaitajoleekin.

GAUEAN

22:00 - Erdialdeko kaleetan
 FAROLEN PROZESIOA: Zapatarri kalea, Andre Maria Zuriaren plaza, San Antonio kalea, Florida kalea, Ramon Ortiz de Zarate kalea, Alaba Jeneralarren kalea, Loma Jeneralarren kalea, Andre Maria Zuriaren plaza.
 20:00-21:30 - Florida parkean
 Dantzaldia: COSTA NORTE.
 23:00 - Principal antzokian
 "LAS MANZANAS DEL VIERNES".
 ESKU PILOTA, profesionalak.
 Geltoki plazan
 Gau-jai: SAZON, jondearen partehartzearekin.
 Florida parkean
 Gau-jai: COSTA NORTE.
 Txosnetan
 Gau-jai: ETZAKIT.
 23:00-3:00
 Erdialdean eta Alde Zaharrea
 MUSIKA KALEAN: KIRRINKA fanfarrea eta LANTZIEGO eta BIASTERIKO txaranga.
 23:30 - Aihotz plazan
 Kantaldia: NUMIDIA.
 Olagibel kalean
 ZORTZI ZEZENUZKO eta musika-giroa: BIASTERI eta LANTZIEGOKO txaranga eta KIRRINKA fanfarrea.
 00:00 - Foru plazan
 Kontzertua: KETAMA.
 Arka plazan
 Gau-jai: ILUNA.
 00:30 - Plaza Berrian
 ESCALA ROYAL orkestra.
 Probintzia plazan
 Mexikoko musika: FRANCISCO RIBELLES

astelarena

astofatea

GOIZEAN

10:00-14:00 - Foru plazan. EUSKAL PILOTA.
 11:00 - Zezen-plazan. Bigantxak
 San Migel parrokian
 BLUSA TXIKIen ospakizana, Zeledon Txikirekin, eta LORE-
 ESKAINTZA, Andre Maria Zuriaren aldarroan.
 Andre Maria Zuriaren plazan
 "Zure 6. argazkia, Boroziak"
 Foru plazan. Arabako Boloen erakustaldia.
 11:30 - Andre Maria Zuriaren irudiaren aurrean
 OHOREZKO AURRESKUA, Zeledon Txiki eta UDAL
 TXISTURALI BANDAK eskainia.
 11:30-15:00 - Floridaako ibilbidean
 Gastronomía eta herri artisautza azoka. Nafarroaren aguna.

EGUERDIAN

Plaza Berrian. "GOAZEN FESTARA" kalejira banda
 desberdinekin
 Erdialdean. ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA
 TXOTEN konpartsa
 San Martin auzoan. ARABAR ERRIOXA txaranga.
 Foru plazan. Arabako Boloen erakustaldia.
 12:00-14:00 - Auzoetan. Fanfarreak.
 Prado parkean. Abentura gunea.
 12:30 *Peñafloridako Kondearen plazan. Gargantua.
 Vicente Goikoetxea. Pailazoak: XILIPURDI (eus.).
 Eskoriatza-Ezkibel jauregian. Piano Emanaldia.
 Arka plazan. Eltzogoko Santa Zozilia Musika Banda.
 Bastiturri kalean. X. GANBA JATEA "GASTEIZTARRAK".
 Aihotz plazan. Trikitixa: Gasteiz Txiki Eskola.
 13:00 - Florida parkean. Gasteizko Udal Musika Banda.
 Foru plazan. Herri kirolak.
 13:30 - Aihotz plazan. Bertsolariak.
 Peñafloridako Kondearen plazan
 Txotxongiloak: Mamarro TEATRO (euskaraz).

ARRATSALDEAN

17:00 - Plaza Berritik zezen-plazara.
 Zezenetara joatea.
 17:00-20:30 - Prado parkean. Abentura gunea.
 17:30 - Plaza Berritik Prado parkera.
 Blusa txikiak jaira joatea, GESALTZAko fanfarreak lagunduta.
 18:00 - Zezen-plazan. ABONUKO 3. ZEZENKETA.
 Prado parkean. TXIKIENTZAKO FESTA HANDIA:
 18:00 - Antzerkia: Sebastopoleko Titiriteroak.
 19:00 - Dantzaldia: ETORKI TALDEA.
 18:00-20:00. Gargantua.
 18:30 - Vicente Goikoetxea kalean
 Jotak: Julio Sánchez y Los Pamplónicas.
 19:00 - Amarika plazan
 Jazza: ISELAREN BANDA.
 Aihotz plazan.
 Euskal Herriko Haurren V. Dantza Aukatu Txapelketa.
 Musika Etxeko lorategian. Saebuho: trohai laukotea.
 20:00 - Principal antzokian. "SIN RENCORES"
 Jardin de Falerinas. IN ALBIS.
 Eskoriatza-Ezkibel jauregian. Piano eta bielle.
 Prado parketik Espainia plazara
 Blusa txikien itzulera.
 20:00-21:30 - Florida park. Dantzaldia: Quinta Avenida.
 20:30 - Zezen-plazatik Plaza Berrira.
 Zezenetatik itzultzea.
 Aihotz plazan. DANTZA PLAZAN.

GAUEAN

23:00 - Mendizabalean (SHEE)
 3. Su Artifizialak: LUIS BRUNCHU.
 BETI JAI frontoian. ESKU PILOTA, profesionalak.
 Principal antzokian. "SIN RENCORES"
 Florida parkean. Gau-jai: QUINTA AVENIDA
 Geltoki plazan. Gau-jai: SAZON.
 23:00-3:00 - Erdialdean. Performak.
 23:30 - Aihotz plazan. KONTAKIAK. Iratxe
 Olagibel kalean. Zortzi Zezenetako eta auzo-erakundeak.
 00:00 - Foru plazan. Kontakia: Pailazoak eta auzo-erakundeak.
 Arka plazan. Gau-jai: PETANQUE.
 00:30 - Plaza Berrian. JAI BUKAERA. Salsak.
 Probintzia plazan
 Salsa: SOCIEDAD LATINA.

GOIZEAN

9:00 - San Migel parrokian
 Blusa beteranoak: moza, Andre Maria Zuriari loreak eskaintzea,
 ohorezko aurreksua eta argazkia egitea.
 10:00 - Plaza Berrian
 "GOAZEN FESTARA" Kalejira banda desberdinekin.
 10:00-14:00 - Foru plazan. EUSKAL PILOTA.
 11:00 - Zezen-plazan. Bigantxak
 Foru plazan. Boloen erakustaldia.
 11:30-15:00 - Floridaako ibilbidean.
 Gastronomía eta herri artisautza azoka. Nafarroaren aguna.

EGUERDIAN

12:00 - Aiztogile kaletik...
 ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN konpartsa
 Vicente Goikoetxea kalean. Pailazoak: Hamelin (erdaraz).
 Peñafloridako Kondearen plazan. Gargantua.
 Foru plazan. Arabako Boloen erakustaldia.
 12:00-14:00 - Auzoetan. Fanfarreak.
 Prado parkean. Abentura gunea
 12:30 - Plaza Berrian. Kale antzerkia: CLARET CLOWN.
 Eskoriatza-Ezkibel jauregian. Oiantz laukotea. Obooa,
 bibolina, biola, txaloa eta kontrabaxua.
 Aihotz plazan. Trikitixa eta alboka.
 Arka plazan. Aguraingo Musika Banda.
 Probintzia plazan. Beteranoentzako V. Dantza Lehiaketa.
 "EL MENEITO VETERANO", "NEKAZARIAK".
 13:00 - Florida parkean. Gasteizko Musika Banda.
 Foru plazan. Herri kirolak.
 13:30 - Aihotz plazan. Bertsolariak.
 Peñafloridako Kondearen plazan
 Txotxongiloak: Titiriteros de Binofar.

ARRATSALDEAN

17:00 - Plaza Berritik zezen-plazara
 Zezenetara joatea.
 17:00-20:30 - Prado parkean. Abentura gunea.
 18:00 - Zezen-plazan. ABONUKO 4. ZEZENKETA
 18:00-20:00 - Peñafloridako Kondearen plazan
 Gargantua.
 18:30 - Vicente Goikoetxea kalean
 Jotak: RAICES NORTEÑAS.
 Prado parkean. Haurrentzako dantzaldia:
 ETORKI TALDEA.
 19:00 - Amarika plazan. Jazza: CARTOON BAND.
 Aihotz plazan. Arabako VI. Trikitilari Txapelketa eta
 Arabako Haur Trikitilarien IV. Txapelketa.
 Musika Etxeko lorategian
 Bedroom: mendabaldoko kostaldako rocka.
 20:00 - Principal antzokian. "EL LUCERNARIO".
 Jardin de Falerina. SILVER.
 Eskoriatza-Ezkibel jauregian
 Gabor musikari: CAMARETA DA CAPO (soke laukotea).
 20:00-21:30 - Florida parkean. Dantzaldia: COBRA.
 20:30 - Zezen-plazatik Plaza Berrira.
 Zezenetatik itzultzea.
 Aihotz plazan. DANTZA PLAZAN.

GAUEAN

23:00 - Mendizabalean (SHEE)
 4. Su Artifizialak: ZARAGOZANA.
 BETI JAI frontoian. ESKU PILOTA, profesionalak.
 Principal antzokian. "EL LUCERNARIO"
 Florida parkean. Gau-jai: COBRA.
 Geltoki plazan. Gau-jai: SAZON.
 23:00-3:00 - Erdialdean
 Musika kalean: Fanfarreak.
 23:30 - Aihotz plazan. Kantaldia: IRATXE.
 Olagibel kalean. ZORTZI ZEZENETAKO eta
 auzo-erakundeak. Fanfarreak.
 00:00 - Foru plazan.
 The Beatles eta DET CON DOL.
 Arka plazan. Gau-jai: ETORRI.
 00:30 - Plaza Berrian. BELICZINA orkestra.
 Dantzaldia ibilitea.
 01:00 - Plaza Berrian. JAI BUKAERA. Salsak.
 Probintzia plazan
 Salsa: MAYITO VARELA Y SU FAMILIA.

asteazkena

GOIZEAN

10:00-14:00 - Foru plazan. EUSKAL PILOTA.
 11:00 - Zezen-plazan. Bigantxak

EGUERDIAN

12:00 - Plaza Berrian
 "GOAZEN FESTARA" kalejira banda desberdinekin.
 Erdialdean.
 ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN konpartsa
 Vicente Goikoetxea kalean
 Pailazoak: FARRE eta FARRE (eus.).
 Peñafloridako Kondearen plazan. Gargantua.
 Zaramaga eta Pilar auzoetan
 ARABAR ERRIOXA Txaranga.
 Foru plazan. Arabako Boloen erakustaldia.
 12:00-14:00 - Auzoetan. Fanfarreak.
 Prado parkean. Abentura gunea.
 12:30 - Plaza Berrian. Kale antzerkia: SUBUS.
 Eskoriatza-Ezkibel jauregian
 SAMURKI ahots eta musika-tresna taldea.
 Aihotz plazan. Trikitixa: Gasteizko Trikitixa Eskola.
 Arka plazan. Arakiako Bandaren KONTZERTUA.
 13:00 - Foru plazan. Herri kirolak.
 Florida parkean. Gasteizko Musika Banda.
 13:30 - Aihotz plazan. Bertsolariak.
 Peñafloridako Kondearen plazan
 Txotxongiloak: XILIPURDI (euskaraz).

ARRATSALDEAN

17:00 - Plaza Berritik zezen-plazara.
 Zezenetara joatea.
 17:00-20:30 - Prado parkean. Abentura gunea.
 18:00 - Zezen-plazan. ABONUKO 5. ZEZENKETA.
 18:00-20:00 - Peñafloridako Kondearen plazan.
 Gargantua.
 18:30 - Vicente Goikoetxea kalean
 Jotak: BALUARTE ARAGONES.
 Prado parkean. Haurrentzako dantzaldia: Etorki Taldea.
 19:00 - Senda ibilbidean. ARABAR ERRIOXA Txaranga.
 Amarika plazan. Jazza: TXEMA VILCHES hirukotea.
 Musika Etxeko lorategian CADENCE TRIO: ahots jazz.
 19:30 - Aihotz plazan. Dantza plazan.
 20:00 - Principal antzokian. "EL LUCERNARIO".
 Jardin de Falerina. BLUESMOKERS.
 Eskoriatza-Ezkibel jauregian
 QUODLIVET GANBERA ABESBATZA. Errenazimentuko musika.
 20:00-21:30 - Florida parkean
 Dantzaldia: CONDOR.
 20:30 - Zezen-plazatik Plaza Berrira.
 Zezenetatik itzultzea.
 Aihotz plazan. DANTZA PLAZAN.

GAUEAN

23:00 - Mendizabalean (SHEE)
 Kartzaria: ROSA HINEZ.
 Mendizabalean (SHEE)
 5. Su Artifizialak: CARVALER.
 23:00-3:00 - Erdialdean. Performak.
 23:30 - Aihotz plazan.
 ZORTZI ZEZENETAKO eta auzo-erakundeak.
 23:45-3:00 - Plaza Berrian.
 Salsa: MAYITO VARELA Y SU FAMILIA.
 1:00 - Andre Maria Zuriaren plazan
 JAI BUKAERA: ZELEDON AGURTU ETA IGOZTEA. AZKEN
 TRAKA, ZAMORANO CABALLER pirotekniaren eskutik.

Gasteizko jaiak 2000

Adi izan

Pailazoak

Vicente Goikoetxea kalean - 12:00etan

Abuztuak 5: Zirko Ttipia (euskaraz)

Abuztuak 6: Opelli (erdaraz)

Abuztuak 7: Xilipurdi (euskaraz)

Abuztuak 8: Hamelin (erdaraz).

Abuztuak 9: Farre eta Farre (eusk.)

Txotxongiloak

Peñafloridako Kondearen pz. - 1:30etan

Abuztuak 5: Kixka (euskaraz).

Abuztuak 6: Bihar Txotxongilo (eusk.).

Abuztuak 7: Mamarro Teatro (erd.).

Abuztuak 8: Titiriteros de Binefar (erd.).

Abuztuak 9: Xilipurdi (euskaraz).

Haurrentzako dantzaldiak

Prado parkean - 18:30etan

Abuztuaren 5, 6, 8 eta 9an

ETORKI TALDEA.

Txikientzako festa handia

Abuztuak 7 - Prado parkean 18:00etan

Haurrentzako antzerkia:

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK

19:00etan. Dantzaldia: ETORKI TALDEA

18:00-20:00etan. Gargantua

Gaztetxea

4 eta 5an 18:00etatik aurrera

6, 7, 8 eta 9an 20:00etatik aurrera

Abuztuak 5 - Euskal Dj-ak.

Abuztuak 6 - 23:00etan

- Desobediencia Civil (Mexiko)

- Behin Betiko (Lakuntza)

Abuztuak 7 - 22:00etan

- Streety (Frantzia)

- Xabaltx (Lapurdi)

Abuztuak 8 - 22:30etan

- Neu Bat (Gasteiz)

- Selecta Kolektiboa (Iruñea)

Abuztuak 9 - 22:00etan

Argi ta su ikuskizuna:

SUTAN TAM (Gasteiz)

BERTSOLARIAK

Aihotz plazan - Eguerdiko 1:30etan

Abuztuak 5:

Jon Lopategi, Jesus Mari Irazu,

Zigor Enbeitia eta Xabier Legarreta.

Abuztuak 6:

Jon Sarasua, Angel M^o Peñagarikano, Oihane

Perea eta Nerea Elustondo.

Musika Ikuskizunak

Foru Plazan - Gaueko 12:00etan

KONTZERTUAK

Abuztuak 4: KETAMA

Abuztuak 5: CAFE QUIJANO

Abuztuak 6: KEPA JUNKERA

Abuztuak 7: FUNDACION TONY MANERO

Abuztuak 8: The Brontes eta DEF CON DOS

Abuztuak 9: HOP MACHINE

Pobintzia Plazan. Gaueko 12:30etan:

SALSA eta Mexikarrak

Abuztuak 4: FCO. RIBELLES

Abuztuak 5: FRANKI TORRES Y SU CAÑA CARIBEÑA

Abuztuak 6: PACO FORMOSO

Abuztuak 7: SOCIEDAD LATINA

Abuztuak 8: GLADYS MERCADO Y LOS

CHARROS

Abuztuak 9 - 11:45 eta 1:15etan

MAYITO VALDES Y LA FAMILIA

Florida Parkean - 20:00etan eta 23:00etan

Dantzaldiak

Abuztuak 4: COSTA NORTE

Abuztuak 5: PRELUDIO

Abuztuak 6: CONTINENTE

Abuztuak 7: QUINTA AVENIDA

Abuztuak 8: COBRA

Abuztuak 9: CÓNDROR

Musika Ikuskizunak

Abuztuak 7:

Andoni Egaña, Ricardo Gz. de Durana, Igor Elortza eta Amets Arzallus.

Abuztuak 8:

Sebastian Lizaso, Nagore Soroa,

Jon Maia eta Aitor Mendiluze.

Abuztuak 9:

Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga,

Asier Iriondo eta Asier Otamendi.

Arka plazan - Gaueko 12:00etan

Abuztuak 4: ILUNA

Abuztuak 5: MARACAIBO

Abuztuak 6: JOSELU ANAIK

Abuztuak 7: PETANCA

Abuztuak 8: BERLIN

Geltoki plazan

11:00etan - Abuztuaren 4, 5, 6, 7 eta 8an:

Gau-jaia: SAZON, jendearen partehartzearekin.

Amarika plazan - Arratsaldeko 7:00etan

JAZZA

Abuztuak 5: ZEZO RIBEIRO BAND

Abuztuak 6: DOLPHIN BLUES BAND

Abuztuak 7: IGEAREN BANDA

Abuztuak 8: CARTOON BAND

Abuztuak 9: TXEMA VILCHES TRIO

Vicente Goikoetxea k. - Arratsaldeko 6:30etan

JOTAK

Abuztuak 5: ALMA NAVARRA

Abuztuak 6: ESTAMPA BATURRA

Abuztuak 7: J. SANCHEZ Y LOS

PAMPLONICAS

Abuztuak 8: RAICES NORTEÑAS

Abuztuak 9: BALUARTE ARAGONES

Aihotz plazan - Gaueko 11:30etan

KONTZERTUAK

Abuztuak 4: NUMIDIA

Abuztuak 5: EGAN

Abuztuak 6: LISKER

Abuztuak 7: IZOTZ

Abuztuak 8: IRATXO

ABUZTUAK 4, OSTIRALA

24:00
ETZAKIT

ABUZTUAK 5, LARUNBATA

* HERRI BAZKARIA
* AMNISTIAREN
ALDEKO KALEJIRA
ETA EKITALDIA

Gasteizko TALDEEN GAUA:

23:00
BROCHETAS D'OPORKO

24:00
ORTOPHONK

01:00

SEGISMUNDO TOXICOMANO

02:00

MALM

ABUZTUAK 6, IGANDEA

23:00
LA HERMANA MARY
24:00 : DOCTOR DESEO
02:00 : SKUNK

ABUZTUAK 7, ASTELEHENA

ANTZERKIAREN EGUNA:

23:00
LATIRILI "Tentempie"

24:00
ANDER LIPUS "Ardoaz"

01:00

@CABARET

No me llames muñeca"

02:00

TIRRI-TARRA SHOW

ABUZTUAK 8, ASTEAZKENA

23:00
ERASO
01:00
S.A.

ABUZTUAK 9, ASTEAZKENA

01:30
HECHOS CONTRA EL
DECORO
03:00
BURMAN FLASH



josetxu ribiere. txosnen komisioko kidea: “Jaietatik partehartze eskasa aldatuko nuke”

Txosnen komisioko kidea da iazko urtarriletik. Josetxu Ribiere Arrasaten jaio zen baina Gasteizen da 1982az geroztik. Duela 18 urte ez dela bere herriko jaietara joan, “solik Santo Tomasen, eta noizbehinka”, dio. Gasteizko jaiak beti txosnetan lan egiten ematen ditu, hasiera-hasieratik baitago ZUTIKen txosnan, eta berak dioenez “ez dut urte bat ere libratu”. Jaiak bukatu eta abuztua ere hemen igarotzen du, baina gero kanpora joaten saiatzen da oporrak pasatzera.



Izen abizenak:

Josetxu Ribiere

Jaioterria: Arrasate

Jaioteguna: 1962ko iraila

Adina: 38 urte

Lanbidea: ZUTIKen egiten du lan

- Nola emango dituzu aurtengo jaiak?

Egia esan, denetarik egingo dut. Baina batez ere lan handia egin beharko dut txosnetan,

nahikoa “kaña” izango delako. Hori bai, ondo pasatzen ere ahaleginduko naiz. Eta jaiak bukatuta atsedean hartzea gustatuko litzaidake.

- Zein duzu jaietako ekin-tza gogokoena?

Jaiak bukatzen direnean eta txosna desmuntatu behar denean.

- Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Txosnak muntatzea.

- Zer aldatuko zenuke jaietatik?

Partehartze eskasa aldatuko nuke. Udalarekin izan dugun esperientzia ez da batere ona izan, benetako Jai Batzordea beharko genuke hau behar bezala ateratzeko.

- Edaririk egokiena jaietarako? Mojitoa.

- Eta janaririk onena? Otartekoa ez den edozer gauza.



aitziber goitia, alde zaharreko bizilaguna: “ ‘Blusa’ batzuen jarrera ez da oso egokia izaten”

Gasteizen jaioa den arren 22 urteko gazte honek Bastida herri errioxarrean pasa du bere haurtzaro eta gaztealdiaren zati handi bat. Euskal Filologia ikasteko asmoz duela lau urte itzuli zen hiriburura eta dagoeneko bi daramatza Alde Zaharrean bizitzen. Jaiak oso gustuko baditu ere bere lanbideak ez dio hauetaz gozatze-ko asti gehiegirik uzten. Hori bai, aukera sortzen zaionean jaiari murgildu beste erremediorik ez du izaten; izan ere, ‘Kutxileria’ kalea gure hiriko jaietako muina da. Eta nahiz eta zarata handia jasatea egokitzen zaion, beheko tabernako musikak lagunduta Aitziber lasai-lasai lokartzen da...



Izena: Aitziber Goitia Martin
Jaiotze data: 1977-9-19
Lanbidea: Aisialdiko begiralea
Jaietarako edaria/janaria: “Edaria argi eta garbi, patxarana”
Jaietatik gustuko: Txosnak, “bertan sortzen den giro bereziarengatik”
Jaietatik gustuko ez: Murgingo eguneko ajea, kaleen zikintasuna eta ‘blusak’ (batzuk)... “Ordu horietan dabilten ‘blusa’ gehienak okerrenak izaten dira eta batzuetan ez dute oso jarrera atsegina izaten”

- Zer egingo duzu aurtengo Andre Maria Zuriaren Jaietan?

Lan eta lan, beste aukerarik ez dut eta. Abuztuaren 1etik 15era Zuhatzara noa begirale, gero pisuko gastuak eta beste batzuk ordaindu ahal izateko. Hortaz, gure jai alternatiboak Zuhatzan bertan ospatuko ditugu. Horrela behintzat neurri txiki batean Gasteizen izateko grina baretuko dugu.



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
 Hedegile kalea (KORRE), 14
 (San Migeleko pasabidea)
 Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

INZABERNA
RA
JATETXEA
 BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

plató
TABERNA
 Zaldiaran Plaza, 10 • Tfno.: 945 22 65 64

BAR
KLAKÉ
 KVTXA, 2
 TFNO.
 143883 GASTEIZ

GEU etxean jaso nahi dut

geugaste@gm.es

Izena _____

Abizenak _____

Helbidea _____ Tfnoa: _____

P.K. _____ Herria _____ Herrialdea _____

Bankua/Kutxa _____ Sukurtsala _____

Kontu zk. (20 digitok) _____

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu: GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

Iragar
Zaitetz
Geu aldizkarian
945 22 21 53



iñaki araolaza:

“Nik jaiak auzoetara ere eramango nituzke”

Iñaki Araolaza Gasteizen jaio zen duela 46 urte, Legutianoko atean hain zuzen ere. 2 alaba ditu: Uxue eta Edurne. Aita euskalduna du, Eskoriatzakoa; hortaz, etxean euskara beti present. 20 urterekin, oraindik zeharo galduta ez zuen euskara berreskuratu asmoz, euskararen munduan murgildu zen. Akaso egoera berezi honengatik ez du oso argi euskaldun berria, zaharra edo tarteko zerbait den. Orain 10 urte gutxigora-behera utzi zion AEKn lan egiteari, bertan 6 urte egon eta gero. Egun lorazaina dugu eta aurtengo jaietan lan egitea egokitzen zaio baina honetan Iñakik badu esperientzia, iaz ere hala izan zen eta. Berak Lakua auzoan lan egin ohi du, baita aurtengo festetan ere.

- Jaietatik gehien gustatzen zarena:

“Aihotz plazan dauden ekitaldiak eta gero, zezenketak”

- Jaietatik kenduko luke...

“Zikinkeria, eta bestetik, Zeledon jaitsierako txanpana: zikina da, usain txarra ematen du eta botila hutsez beteta geratzen da erdialde osoa. Ohiturak pixkanaka-pixkanaka sartuz doaz eta onartu behar dira, baina hori ohitura txarra da...”

- Eta Gasteizko Jalek falta dute...

“Nik jaiak auzoetara ere eramango nituzke -nahiz eta hasieran garesti atera eta erantzun gutxi izan-, batik bat goizez: dantzaldiak, musika...”

- Lan egiteaz gain, zer egingo duzu jaietan? 4 eta 5a jai egunak dira, hortaz... jaia. Agian arratsaldeetan (libre ditu-eta) zezenketaren bat ikusi eta igual buelta bat eman.

- Eta parranda? Asteburuan.

Goizeko 7etarako egon behar dut lanean, eta niri lo egitea izugarri gustatzen zaidala kontuan hartuta.

- Orduan 22:00etan, “Casimiro” ateratzen denean, ohera? Ja, ja, ez, ez, 10etan ez, baina bai 12etarako.

- Baina orduan loreak zapalduko lizkizukete... “Ah, beno, ez lirateke ekintza jendetsuak izango, ja, ja...”

-Jaietarako edaria:

“Ardoa eta ura, akaso garagardoa, baina kalimotxoa eta kontu horiek guztiak kanporatuko nituzke”

-Eta jana: Berakatz-zopa eta txokolatea



alberto zerain, mendizalea: “Behin arropa lapurtuta erdi biluzik atera nintzen zezen plazatik”

Mendizale fina izateko sasoi ona mantentzea beharrezkoa den heinean bi umeren aita dela oso kontuan du Zerainek. Gauzak horrela, gabean nahiz goizean ahal bezain ondo pasatzen saiatzen bada ere Alberto jaietarako ez du ezer berezirik prestatzen, “kirol pixkat egin eta handik eta hemendik ibili giroarekin disfrutatzen da egun horietan egiten dudana”. Orain dela urte batzuk, berriz, ‘blusa’ zen garaian alegia, zezen plazatik ia biluzik atera zen alkan-dora eta arropa gehiena “lapurtu” baitzioten.

- **Izen-abizenak:** Alberto Zerain
- **Jaioterria:** Gasteiz
- **Jaioteguna** 1961eko abuztuak 20
- **Adina:** 38 urte
- **Lanbidea:** Familiak duen garraio entrepesako langilea bada ere mendizalea izateagatik ezaguna da
- **Ibilbidea:** Eskaladaren zalea izateetik Andeetara 1983an, eta ordutik Himalaian lau aldiz izan da. 1995ean Makalun, eta 1997an K2n gailurra lortu zuen. Iaz,

berriz, Everest iparraldetik igotzeko saiakeran ere izan zen mendizale gasteiztarra...

-**Jaietako edari gustukoena:**

“Ardoa..., hau da, ardo ona”

- **Jaietako janari gustukoena:** Makailua eta osagarri ugari duten entsaladak

- **Zer kenduko zenuke Gasteizko jaietatik?** “Ez nuke ezer kenduko”

-**Zer gehituko zenieke?** “Goizean goizetik kaleko giroa alaitu nahian indar handiagoa emango nieke musika taldeei”

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER MIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

ITURRIETA

Sagardotegia



UDARAKO PLANIK FRESKAGARRIENA!

Arraga auzoa.

tfnoa: 945 44 53 85

ARAMAIO

adaka 
madinabeitia



Floridako altxorra!

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ARABA JAIRIK JAI

Amurrio

Kantauri Arabarraren bigarren herria da. Nerbioi eta Altube ibaiek zeharkatzen duten herri industrializatu, Aiarako gehienak bezala. 9.500 biztanle baino gehiago ditu egun.

Jasokunde Andramari eta San Rokeren omeneko jaiak ospatzen dituzte amurriokoek abuztuaren 11tik 17ra bitartean.

• Ez galdu:

- *Iguarrakoaren jaitsiera. Antzinako txori mitikoaren helduerarekin batera hasten dira Amurrioko jaiak.*

- *Abuztuaren 14an musikak izango du protagonismo nagusia Benito Lertxundi eta Ekon rock taldearekin.*

- *15ean txistularien alardea eta ohikoa den ganadu erakusketa.*

- *Abuztuaren 16an Karrozen desfilea izango da. Herrikoekin batera Samba Brasil musika talde brasildarra arituko da.*


Informazioa: 94 89 11 61

Okondo

Errioxan bezala Aiaran ere jairik jai ibiliko dira abuztu eta irailean. Okondok Sanbartolomeak ditu herriko jai nagusi eta abuztuaren 24 eta 25ean ospatuko ditu. Aurretik San Roman auzoan ere jaietan aurkitu ahal izango dituzue okondotarrak abuztuaren 9an.

Jaiez gozatzear gain ingurua ezagutzeko aukera ere ematen du Okondora joateak, Kexanako inguru ederra eta Joxe Miel Barandiaranek aztertu Mariazulo haitzuloak bisitatu baitaitezke, esaterako.

Informazioa: 94 89 80 23



Bilar

Bilar

Toloño mendizerraren magalean dago Bilar, Arabako Errioxako paraje ederrean. 400 biztanle baino gutxiago duen herria dexente hazten da udaran, inguruko guztia bezala.

Jaiak: Sanrokoak. Abuztuaren 12tik 17ra bitartean.

Adi! Aurreko urteotan antolatatu den akelarrea ez ospatzea erabaki dute aurten antolatzaileek.

Informazioa: 945 37 10 64

Oka-Iruña

Trebiñoko mugan kokatuta, Arabako Lautadako herri nagusienetakoa da Iruña. Abuztuaren 16an, San Roke egunean, ospatzen dute iruindarrek jaietako egun nagusia.

**Informazioa: 945 37 10 64 edo
945 36 14 57**





Leza

Urtean zehar 200 biztanle izatera iristen ez bada ere, bertako eguraldiaz gozatzera joaten direnek dexente igotzen dute kopuru hori udan zehar. San Roke egunean ospatzen dute Lezatarrek ere jaietako egun nagusia eta bertaraturatukoek ardo ona dastatzeko aukera izango dutela ezin zalantzan jarri.

Informazioa: 941 60 50 21

Laudio

Arabako jairik luzeenak dira Laudiokoak. Abuztuaren 15ean hasi eta 27an amaituko dira eta Aiarako hiriburuko Sanrokoak.

• Ez galdu:

- 20an izango den txirrindulari lasterketa. Ohiko bilakatu da zita hori Laudioko jaietan. Munduko txirrindulari profesional onenetakoak ikusteko aukera izango da.

- 26an: Odolkien eguna.

- 27an: Kofradiek bere eguna ospatuko dute.

Informazioa: 94 672 12 50

Mainueta

Arabako Errioxan berriro ere! Abuztuaren 24an ospatzen dute mainuetarrek urteko egun nagusia. Hala ere, jaietako egunik animatuenak asteburukoak dira.

Informazioa: 941 60 90 54

Zollo

Emeterio eta Celedonio santuen omenezko jaiak ospatzen dituzte zollotarrek abuztuaren azkenengo bi egunetan, 30ean eta 31n.

JAI GEHIAGO:

ARRIOLA, GORDOA, URABAIN, GETARIA (ESPEJO), BOBEDA, BILANANE, LABARKA, LAGRAN, LANGRAITZ, URRUNAGA, JUGO....



ADI ARABAKO JAIEI BERAZ!!!

Informazio gehiago: <http://www.jet.es/dfa>



- SA JENTO,
BADAUDE
ZUZMAGARRIAREN
ARGA KIA...

-... ETA ZOKA BATETI
IHEZ EGITEN ZAIATU ZEN?
HAU "CALEBORROCAN" DABI,
ZEGURU! PRENTXARI DEITU,
COÑO!!!

ARMA
PUNZANTE

COCTEL
MOLOTOV

MISSIL

LIQUIDO
INFLAMABLE

RETRATO-ROBOT

DISPOSITIVO
IGNICION

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA



13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA

13857-16784/P1
COMANDANCIA DE ALAVA



Udaran ere
hurbil zaitez
GEU aldizkariaren
freskotasunera!!

Errioxa arabarrak
jai zorientsuak
opa dizkizue



Eskuernaga - Villabuena (ARABA)